

Mintzola Fundazioaren jardunaldiak

Idatzizkotik ahozkora jauzia egiteko arau bila

Idatzizko eta ahozko hizkuntzak elkarri lotuta agertzen zaizkigu batzuetan, kontrajarrita bestetan. Sarri, idatzizkoak ahozkoa jasotzen du, eta aldi berean, ahozkoak idatzizkoa du oinarri. Hala ere, errealitatea irudikatzeko bi modu erabat ezberdin dira, Mintzola Fundazioak antolatutako *Ahoa bete hots* jardunaldietan azaldu dutenez.

IURE EIZAGIRRE

Argazkiak: Mintzola Fundazioa

Idatzizkotik ahozkora jauzia egiteko arau bila izenburupean egindako topaketetan, ahoz-kotasuna lantzen duten hainbat aditu aritu dira hiru egunez euren ikerketak, lanak eta ikuspegiak azaltzen. Unibertsitateko bi irakaslek, HUHEZIKo Arantza Ozaetak eta EHUKo Luis Mari Larringanek, ireki dituzte jardunaldiak, idatzizko eta ahozko hizkuntzak elkarren osagarri direla eta ez *continuum* bat argituz. Jauzi bat dago bi hizkuntza horien artean eta hizkuntza-sistemaren bi modalitate ezberdin diren heinean, hartzailearengana heltzeko beharrezkoa da horietako bakoitzaren ezaugarriak menperatzea. Horrela, idatzizkoaren nondik norakoak eskolan irakasten dira, eta Ozaetaren esanetan ahozko hizkuntzaren irakaskuntzan aurrerapausoak eman badira ere azken urteotan, batez ere eskoletan, horri buruzko ezagutza murrizta da oraindik. Ondorioz, ahozkoaren lagungarri izan beharko lukeen idatzizkoa, honen oztopo bihurtzen da sarri, ez dakigulako idatzitakoa esaten.

Julia Marin antzerkizalea eta Itzulidatz lan-taldeko kidea da. Bere ustez, beharrezkoa da kontuan hartzea ahozko hizkuntzak askotan idatzizkoa izaten duenez oinarri, idatzizko testua sortzerakoan hori esateko dela eta entzuleak lehen kolpean jaso behar duela. Bere antzerkizale ibilbidean testu ugari landu ditu Marinek eta euskarak nola funtzionatzaren duen aztertu du. Horri



Ahozko hizkuntza sendotzen jarraitzeko asmoz, Julia Marinek (argazkian) euskararen zazpi beharrianak aipatu zituen jardunaldietan.

esker ahozkotetasunaren naturaltasunera heltzeko metodoa garatu du.

Prosodia eta interpretazioa lantzen ditu metodo horrek. Lehenak ahoskera zuzena erabiltzea, hau da, Euskaltzaindiak ezarritako arauak betetzea, eta mintzamolde jatorria izatea, esaldien melodia errespetatuz euskal doinu naturalean aritzea, ditu helburu. Interpretazioan, berriz, beharrezkoa da testua komunikatiboa izatea. Horretarako doina eta testuaren egitura landu behar dira, "ahotsaren energia dantzaraziko duen itxura emanez".

Horrez gain, interpretazioak naturala eta bizia izan behar du, eta abiadura eta erritmoa zaindu behar ditu.

Ahozkotetasuna hainbat eragilerekin landu ostean, ahozko hizkuntza arautzea eta ikertzea komeni dela ondorioztatu du Marinek. Inguruan duenari erreparatuta, irakaskuntza (bai eskolei bai euskaltegiei dago-kiena) oso gramatikalista dela deritzo, arauak erakustera mugatzen dira, hizkuntza erregistroak alboratuz. Gainera, ahoskera irakasteko gabeziak daude, eta hizkuntzalariek arlo hori aztertu, materiala sortu eta


irakasleei helarazi beharko lieketela uste du. Izan ere, horren guztiaren ondorioz, hitzaren sortzaileek (kazetariak, esatariak eta abarrek) ez dute ahoskerari buruzko irizpiderik eta euren senari jarraituz aritzen dira. Oier Guillan antzerkigileak arte eszenikoetan ere testuak ahozko hizkuntzara moldatzeko eta idatzizkoaren zurruntasuna apurtzeko tresnen, foroen edo elkarguneen gabezia dagoela azpimarratu du.

EITBn ez dute doinurik

Asier Larrinaga EITBko Euskara Zerbitzuko arduradunak, euskal hedabide publikoak ere antzeko gabeziak dituela azaldu du. EITBren sorreran agerian geratu zen idatzizko hizkuntza eredu ahozkoa egokitzeko premia. Ahozko hizkuntzari buruzko zehaztapen askorik ez, ordea, eta orain arte erregistroaren inguruan aritu dira bereziki.

Hizkuntza eredu aukeratu zuten lehenik. Euskara estandarren eta euskalkien arteko hautua ez zen garbia izan, hasieratik horietako bakoitza erabiltzeko hainbat eremu bereiztu baziren ere: albistegietan, esaterako, euskara estandarra erabiltzea erabaki zuten. 2005ean onartutako *EITBrako hizkuntza funtsak* dokumentuak arautu zuen hori, euskara estandarren hizkuntza politika ezarri.

Euskara estandarra ahozkotasunean erabiltzen hastean, ahoskerari lotutako zalantzak sortu ziren: nola ahoskatu txistukariak, <j> hizkia eta abar. Euskaltzaindiak hori arautu bitartean kazetariak euren senari jarraitu zioten ahozkotasuna euskaraz lantzeko. 1998. urtean argitaratu zuen Euskaltzaindiak *Euskara Batuen Ahoskera Zaindua* (EBAZ) eta Larrinagaren esanetan, “ekarpen handia egin zuen ahoskeran”. Aipaturiko zalantzak argitzeaz gain, hainbat hots multzori, besteak beste, diphongoei, hiatoei, eta <bait> eta <-z



Ezkerretik eskuinera: Inazio Usarralde (Mintzolako teknikaria), Luis Mari Larringan (EHUko irakaslea) eta Arantza Ozaeta (HUHEZIKo irakaslea).

gero> bezalako esamoldeei buruzko arauak ezarri zituen. Baina, doinua, erritmoa eta ahoskerari lotutako beste hainbat faktore arautu gabe geratu ziren eta hala jarraitzen dute oraindik. EITBk bere bideari jarraitu dio eta euskarazko doinu guztiak

Hitzaren sortzaileek (kazetariak, esatariak eta abarrek) ez dute ahoskerari buruzko irizpiderik eta euren senari jarraituz aritzen dira

ematen ditu ontzat, galdegaiaren eta mintzagaiaren jokoan ezarri gako. Gainera, doinuari dagokionez, euskara idatzitik aldentzea, ahoskera eta doinuera gehiago lantzea, eta hizkerak bereiztea hartu ditu erronkatzat.

Euskararen beharrianak

Ozaetak eta Larringanek euren aurkezpeneko ondorioetan adierazi dutenez, ahozko hizkuntza indarra berreskuratzen ari da. Euskaldunok arlo horretan zer ikertu asko dugula agerian utzi dute Mintzola Fundazioaren jardunaldiek. Horretan

lagun dezakeen ekarpena egin du Julia Marinek, euskararen zazpi beharrianak identifikatu:

- 1- Esatezko testuaren ezaugarriak ikertu eta deskribatu behar dira.
- 2- Idatzizko euskara estandarra dugun moduan, zergatik ez ahozko euskara estandarra sortu? Horren ezaugarriak deskribatu eta prosodia eredu bat eskaini behar da.
- 3- Hitzaldi on baten ezaugarriak aztertu, deskribatu eta plazaratu behar dira.
- 4- Aurreko edukien ezaugarriak didaktizatu eta ahoskera metodo berriak sortu behar dira, oraingoek 50 urte baitituzte.
- 5- Formazioa eskaini behar zaie irakasleei, eskolaren lana baita ahozko hizkuntza landuaren transmisioa.
- 6- Hizkuntzaren alderdi ludikoa landu eta zabaltzeko behar dira. Euskaltegiak laborategi gisa erabili behar dira.
- 7- Gogoeta sakona egin behar da euskalkien eta erregistroaren erabileraz.

Beharrian horiek asetzeko eta euskararen prosodia ikertzeko erronka bota dio Marinek Mintzola Fundazioari eta Euskaltzaindiak arlo horretan egin dezakeen lana ezinbestekoa dela gaineratu du. ■



Babeslea: EMUN



HIZKUNTZA KUDEAKETA ERAGINKORRA LORTZEKO BIDERIK ZUZENENA

- Hizkuntza aholkularitza eta euskara planak
- Euskara prestakuntzako modulu bereziak
- Itzulpen zerbitzua

www.emun.com
www.lantalan.com

